BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Prentsa-oharra**



# Enkarterrietako Museoa barriztu egin da eta leku gehiago dauka erakusketetarako eta ekintza didaktikoetarako

**Bilbon, 2012ko ekainaren 5ean.** Enkarterrietako Museoak aurrerantzean izango dauen arpegi barriztuaren aurkezpena egin dau gaur. Azken hileotan Museoaren barrukaldea eraldatzeko lan egitarau mardula garatu da, eta horren ondorenez, espazio gehiago lortu da ekintza didaktikoetarako eta aldibaterako erakusketetarako. Aldaketa horri esker, Museoak hobatu egingo ditu kultur eskaintza eta Bizkaiarentzat, eta batez be Enkarterrirentzat, dauen erakargarritasuna.

Barrikuntza horreek aurkezteko ekitaldian izan da Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria, Javier Barrio Museoko zuzendaria eta Ainara Arranz didaktika arloko arduraduna lagun izan dituala. Aurkezpen ekitaldian Madariaga andreak egin dauen hitzaldian adierazo dau Abellanedako Batzarretxean dagoan museo hau “eten barik dagoala barritzen eta egokitzen, beti Bizkaiko gizarteak eskatzen dauenari erantzun egokia emoteko asmoaz” eta “museo bizia dala, arima eta guztiko museoa, urtero-urtero ia hamar mila eskola-umek bisitatzen dabena.”

Enkarterrietako Museoa 1994. urtean inauguratu zan eta urteotako ibilbidean bilakaera nabarmena izan dau, beti kultur ekintzak ugaritu eta hobatzen, lan-egitura sendoa osatzen dauen ekintza multzoa osatzeraino, aldibaterako erakusketei lekua eginik eta urtero-urtero haziz doan erakusketa iraunkor sendoa atondurik, Enkarterriko ondarea eskuratzeko egiten dauen ahaleginari esker. Era berean, eta beste jarduera batzuen artean, ikastetxeei begirako ekintza pedagogikoak egiten dira, baita argitalpen zientifikoak bultzatu be.

Museoaren ibilbide horretan, bada, hasierako ikuspegi haretatik, non museoaren espazioa erakusketa-leku soila zan, ikusleen eta ikusgai egozan bildumen arteko hartu-emona erakustaretoetan bertan gauzatzen zan, beste planteamentu batera jo da, non bildumak bisitariei hurbiltzea erakusketen gainetik dagoan. Hurbilketa hori lortzeko, bada, zenbait estrategia erabili dira, esaterako, ikuspegi didaktikoagoa erabiltea (hezkuntza eta jolasbideko jarduerak) edo ikuspegi zientifikoagoa baliatzea (argitalpenak, hitzaldiak, aldibaterako erakusketak).

Herritarrek eskatzen eben horretara egokitu beharraren eskutik etorri da espazioetan be aldaketak egin beharra, espazioak planteamentu barrietara egokitu daitezan. Azken hilotan egindako atonketeagaz aldatu egin da espazio batzuk jatorriz euken zeregina eta, esate baterako, lekuz aldatu eta hobatu egin dira ekintza didaktikoetarako eta aldibaterako erakusketetarako egozan espazioak, erakusgai dagozan edukinak zabaltzeko eta horren parean egin daitekezan jardueretarako espazioak lortzeko.

**Ekintza didaktikoetarako eremu barria**
Arlo horrek bilakaera handia izan dau, bai partaideen aldetik (azken urteotan urteko 9.000 eskola-ume inguruk erabili dau), bai egindako ekintzen ugaritasunaren aldetik. Espazioetan egin diran aldaketei esker, Museoak kultur ekintza barriak egin ahal izango ditu, daborduko gauzatzen diran tailerron lagungarri: “Sortu dezagun gure munstroa”, “Bizi zure kontua”, “Historiaurreko tailerra”, “Erdi Aroko Tailerra”, “El Pobaleko burdinolarekin batera egindako ekintza”.

**Aldibaterako erakusketen eremua**
Erakusketa osatuagoak, erakargarriagoak eta ulerterrazagoak lortu eta, erakusketa hutsez haraindi joanda, erakusketen edukinen zabalkundea egiteko jarduerak sortzea bideratzearren, hedatu egin da espazio horreei eskainitako lekua eta, era berean, luzatu egin dira erakusketak. Lehen Geografiari eta Historiaurreari eskainita egozan erakustaretoak berratondu eta lekualdatuz lortu da espazio-banaketa barria.

http://www.enkarterrimuseoa.net/

**Nota de prensa**



# El Museo de las Encartaciones presenta un centro renovado con más espacio para sus exposiciones y actividades didácticas

**Bilbao, a 5 de junio de 2012.** El Museo de las Encartaciones ha presentado hoy una cara totalmente renovada. Durante los últimos meses, este centro cultural situado en el barrio de Abellaneda (Sopuerta), propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia, ha desarrollado un completo programa de obras de restauración que han transformado su interior, dotándole de mayores espacios para sus apuestas didácticas y exposiciones temporales. El cambio va a permitir al museo encartado iniciar una nueva etapa que permitirá mejorar su oferta cultural y su atractivo para Bizkaia y, especialmente, para la comarca de las Encartaciones.

Para presentar estas novedades, la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, ha acudido al centro, acompañada del director del Museo, Javier Barrio, y de la responsable del área didáctica, Ainara Arranz. En su intervención , Madariaga ha destacado que la Casa de Juntas de Abellaneda acoge un museo "en permanente renovación y adaptación a las necesidades que va demandando la sociedad vizcaína" y que gracias a esta filosofía renovadora el Museo de las Encartaciones es un "museo vivo y con alma por el que cada año pasan casi diez mil escolares".

La evolución experimentada por el Museo de Las Encartaciones desde que abrió sus puertas en el año 1994, se ha traducido en el incremento y la mejora constante de las acciones culturales, estableciendo así todo un conjunto de actividades que conforman su estructura de trabajo, con cabida para las exposiciones temporales, para una colección permanente que crece, año tras año, gracias a la incorporación de patrimonio encartado, actividades pedagógicas enfocadas a los centros escolares, fomento de publicaciones científicas , etc.

De este modo, se ha pasado de la concepción del espacio museístico como lugar de exhibición de las exposiciones, en el que la interacción de las colecciones con el público se basaba en actividades reducidas que se desarrollaban en las propias salas, a un planteamiento en el que por encima de la mera exhibición se sitúa la aproximación de las colecciones al público. Para ello se han utilizado estrategias que van desde la perspectiva

más didáctica (realización de actividades educativas y lúdicas) hasta la más científica (publicaciones, conferencias, exposiciones temporales…).

Esta adaptación a las demandas ciudadanas se ha visto acompañado de una necesidad de cambio espacial, rediseñando los espacios para acoger los nuevos planteamientos. Las soluciones llevadas a cabo en los últimos meses, han modificado la función establecida en origen en alguno de los espacios. De este modo, se han reubicado y mejorado las zonas destinadas a actividades didácticas y exposiciones temporales, con el fin de ampliar los contenidos expuestos y generar espacios dónde desarrollar actividades paralelas.

**Nueva área de actividades didácticas**

Este área ha sufrido una gran evolución tanto en el número de participantes (alcanzando una cifra anual cercana a los 9.000 niños y niñas en los últimos años) como en la variedad de las actividades realizadas. Con los cambios espaciales, el Museo podrá desarrollar nuevas actividades culturales, que se sumarán a los talleres que ya se imparten: “Tras los romanos”, ”Creando Monstruos”, “Vive tu cuento”, “Taller de Prehistoria”, “Taller de Edad Media” o la “Actividad conjunta con la Ferrería de El Pobal”.

**Área de Exposiciones Temporales**

Con el objetivo de elaborar exposiciones más completas, atractivas y accesibles, que posibiliten la creación de actividades que difundan sus contenidos más allá de la mera exhibición, se ha optado por la ampliación tanto espacial como temporal de estos espacios. La nueva distribución se ha basado en la readaptación y reubicación de las antiguas salas dedicadas a Geografía y Prehistoria.

http://www.enkarterrimuseoa.net/